

opusdei.org

Nafarroako 1.500 ikaslek Rothko.50 proiektuan

Nafarroako Unibertsitate
Museoan parte hartu dute

2020 Ots 11

6 eta 18 urte bitarteko ikasleek, Foru Komunitateko 28 ikastetxetatik datozenek, obraren bertsio propioa eta lankidetzako sei horma-irudi sortu dituzte.

Itxiera-ekitaldian Eskolapios Calasanz, Santo Tomás, María Inmaculada, Santa Katalina, El

Molino, IES Mendillori eta Irabia-Izaga ikastetxeetako ikasleak izan dira. Azken bi ikastetxe horietako ikasleek, gainera, programaren azken bi tailerrak egin dituzte.

Proiektu honen abiapuntua, aurtengo irailetik abendura bitartean garatua, Untitled-en 50. urteurrena da, Rothkok hil baino urtebete lehenago margotu zuena.

Urteurren hau ospatzeko, Museoak Lehen Hezkuntzako, DBHko, Batxilergoko, Lanbide Heziketako, Hezkuntza Bereziko eta gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden taldeetako ikasleak gonbidatu ditu.

Helburu nagusien artean daude begiratzen ikastea, sormena eta talde-lana bultzatzea eta learning by doing filosofia garatzea, eginez ikastea eta, gainera, dibertitzea.

Horrela, pintura ikusi eta autorearen gako biografiko eta artistikoak

ezagutu ondoren, ikasleak museoko tailerretan ari dira lanean.

“Guztiek Rothko-ren lanak erreproduzitu behar dituzte, eta teknikaren, koloreen, formen eta abarren inguruan erabakiak hartu, artistaren teknikan oinarrituta”.

Gainera, parte-hartzaileek interpretatzen ikasten dute.

“Autoezagutza arte garaikidearen bidez lantzen dugu”, dio Echarrik. Horrela, ikasle bakoitzak bi bertsio pertsonal sortu ditu, bata errotuladoreekin eta bestea collagearen teknika erabiliz.

Gainera, guztiek parte hartu dute erreprodukzio handiak, lankidetzako sei horma-irudiak, sortzen. “Talde asko pasatu dira eta sei horma-irudi baino ez ditugu sortu. Horrela, ikasleak ohartu dira itxuraz erraza den zerbait, benetan konplexua dela. Rothko-ren koloreak duen argia oso zaila da sortzen”, nabarmendu du

arloko arduradunak. Proiektu honi esker, gainera, taldean lan egiten ikasten dute, eta denen artean proiektu bat egitearen poza sentitzen dute.

Rothko.50 proiektua baino lehen, Museoan bi hezkuntza-proiektu garatu ziren: Gernika proiektua, 2017-18 ikasturtean, Picassoren lanaren 80. urteurrena eta Museoko bilduman Oteiza Estelak Gernika herri bakezale batentzat egindako lana.